

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

#### **Jarduera Ekonomikoen -estatuko edo probintziako kuota dutenak- gaineko Zerga ordaindu behar dutenen 2021eko errolda jendaurrean jartzea**

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Foru Arauak 16.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, jakitara ematen da Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ordaindu behar dutenen eta, zehazki, estatuko edo probintziako kuota duten jardueren 2021eko errolda jendaurrean jarriko dela Udal Zerga eta Katastro zerbitzuan. Matrikula aztertu eta erreklamazioak egin ahal izateko, hamabost egun baliodun izango dira, iragarri hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 8an

*Udal Zergak eta Katastro Zerbitzuaren burua*  
**ANTONIO ESPINOSA LÓPEZ**